

“OPORRETAN AZKARRAGO JOKATZEN DA” TALDEKAKO II. XAKE TORNEOA.

2008.go martxoaren 29an jokatu zen, Burlatako Euskal Herria Peñan. 5 minutuko partidak izan ziren. Lau jokalariko 10 taldek parte hartu zuten. Hasierako Fasea Liga moduan jokatu zen. Bigarren Faserako lehenengo bost taldeak sailkatu ziren, titulurako lehiatzeko. Gainontzeko bost taldeek seigarren posturako lehiatzen segitu zuten. Hasierako Faseko puntuek Bigarren Faserako balio izan zuten.

Iaz Nuevo Casino, Paz de Ziganda A eta Oberena-Nuevo Casino talde nahasia izan ziren lehenengo hiru sailkatuak, orden horretan.

HASIERAKO FASEA.

Titulua eskuratzeko lehiarako sailkatutako taldeak: **Nuevo Casino, Mikel Gurea A, Alcohólicos Conocidos taldea, Paz de Ziganda eta Gazte Berriak B.**

Seigarren posturako lehiarako geratu ziren taldeak: **San Juan, Oberena, Gazte Berriak A, Mikel Gurea B eta Arrano Elkarte.**

TITULURAKO LEHIA.

Hauxe izan zen azkeneko sailkapena:

- 1) **Nuevo Casino – 40 puntu.**
- 2) Mikel Gurea A – 37'5 puntu.
- 3) Alcohólicos conocidos – 33 puntu.
- 4) Paz de Ziganda – 27'5 puntu.
- 5) Gazte Berriak B – 23'5 puntu.

Talde txapeldunean Henry Diaz, Joaquin Antunez, Rafael Ruiz Escobar, Axel Roviralta eta Alfonso Marcos aritu ziren.

SEIGARREN POSTURAKO LEHIA.

- 6) **San Juan – 26 puntu.**
- 7) Oberena – 25'5 puntu.
- 8) Gazte Berriak a – 22'5 puntu.
- 9) Mikel Gurea B – 13'5 puntu.
- 10) Arrano Elkarte – 13 puntu.

2008-03-29.

Iturria: Talde antolatzailea.